

Kultura

Etkek Oromiñon emango duen kontzertuagaz abiatuko dute 'Auzorik auzo' programazioa lurretan >15



Errefuxiatu kurduak asilo eskaera egingo diote espainiar estatuari


Orain astebete Elorrion kamioi baten barruan agertutako zazpi errefuxiatu kurduak asilo politikoa eskatuko dute, CEAR-Euskadik azaldu duenez. Durangoko Udalaren larrialdietarako etxe bitan babes hartu dute guztiek, lau adin txikikoak barne, eta osasunez ondo daude. CEAREk lasaitasuna eskatu du, errefuxiatuen segurtasuna bermatzeko helburuz. > 4

“AHTa betiko izango da defizitarioa. Datozen belaunaldiei utziko diegu zorra”



Roberto Bermejo | Ekopol taldeko kidea >10

Martxoak 8 nahasia



Fran Garate PPko zinegotzia atxilotu egin zuten astelehenean, emakume batek sexu abusuengatik salatu ostean. Epailak auzia artxibatzea erabaki zuen, baina emakumeak errekurritzeko asmoa agertu du. Plataforma Feministak zinegotziaren dimisioa eskatu du. Martxoaren 8ko mobilizazioak busti ditu gertaerak. > 2

Leche BIZKAIA Esnea

LAKTOSARIK GABEKO ESNE BERRIA DASTATU!

Produktu berria

www.bizkaiaesnea.com

Durangaldea > 5

Euskotrenek Durangaldetik kanpo utzi ditu Berriz eta Zaldibar

Durango > 3

Bizenta Mogel izena jarri diote Durangoko Udal Bibliotekari

Otxandio > 5

Otxandioko lapurretekin lotura duelakoan, gizon bat atxilotu dute

Zornotza > 7

Gernikako Arbolaren kimu batek Santi Onandia gogoratuko du

Herririk herri

Fran Garate zinegotziaren atxiloketak markatu du aurtengo martxoaren 8a

Sexu abusuen salaketa bategatik atxilotu zuten Garate; Plataforma Feministak bere dimisioa eskatu du



Eguaztenean Santa Ana plazan hasi zen manifestazioa.

DURANGO Markel Onaindia Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, eguaztenean elkarretaratzeak eta ekintza kulturalak burutu zituzten herririk herri. Durangon ehunka lagun batu ziren Plataforma Feminis-

tak deitutako manifestazioan, aste honetako gertakariak baldintzatu izan zena hain zuzen. Izan ere, Fran Garate PPko zinegotzia sexu abusua egotzita atxilotu izanak markatu du aurtengo martxoaren 8a.

Salaketa ipini zion emakume batek Garateri, eta astelehen gaua komisarian pasatu zuen atxilotuta. Martitzenean gaia behin-behinean artxibatzea erabaki zuen epaileak, "nahikoa justifikatuta" ez egotearen;

errekurtsorako hiru egun egon dira, eta emakumearen abokatuak errekurritzeko asmoa iragarri zuen atzo.

Salaketari zilegitasuna

Momentuz, behintzat, sententzia judizialik egon ez arren, Durangoko Plataforma Feministak emakumea babestu du, eta salaketari zilegitasuna eman dio. Horregatik, Garatek kargu publikoa utzi beharko lukeela uste dute. "Erasotzaileak ardura publikoa du, eta kondizio horrek kasua larriagotzen du. Garate behin eta berriz entzun izan dugu indarkeria matxista gaitzetsi eta salatzen, eta gertaera honek agerian uzten du garaiotan bizi

dugun berdintasun faltsua", adierazi zuten prentsara bidalitako oharrean. Euren ustez, zinegotzi lez "pertsona eredu-garria" izan beharko litzateke. "Inoiz baino argiago daukagu emakume durangar guztion kontrako eraso izan dela", azaldu zuten tinko.

Eguazteneko manifestazioan bertan, Plataforma Feministakoek zinegotziaren dimisioa eskatu zuten amaieran irakurritako adierazpenean. Udalari eta PP alderdiari gertaera publikoki salatzea eskatu zieten, eta Garatek udaleko kargua uzteko baliabideak ipintzea ere bai.



FRAN GARATE

Udalaren protokoloa

Udalak indarkeria matxistaren aurkako protokoloa martxan ipini zuen auziaren berri edukitzean, eta emakumeari babesa agertu zion, baita bere baliabideak eskaini ere. Garateren inguruan oraindik ez du berbarik egin ofizialki; Pilar Ríos alkateordeak adierazi du errekurtsio epean zer gertatuko den itxaroten daudela, "emakumearekiko errespetuz".

Plataforma Feminista: "Erasotzaileak ardura publikoa du, eta horrek kasua larriagotzen du"

PPko zinegotziaren auziak giroa nahasi du udalean eta kalean

EH Bildu irten egin zen udaleko hirigintza batzordetik, Garate bertaratzean

DURANGO Markel Onaindia Giroa nahastu du PPko zinegotziaren auziak, udalean zein kalean. EH Bilduk, esaterako, Garateri liberazioa kentzea proposatu zuen, albistea jakitean. Gainera, herenegun -martxoak 8- hirigintza batzordetik irten egin ziren koalizio kideak, Garate bertaratzean. "Jasanezina deritzogu

gaurko egunean horrelako salaketa bat jaso duen pertsonaia gatazka eta eztabaida politikoa konpartitzea", azaldu dute sare sozialetan.

Euren esanetan, salaketa ipinitako emakumea etxeko zaintzailearen loba da, eta horregatik, "klase eraso" ere izan dela uste dute, eraso sexistaz gainera.

Protesta, bere aurrean

Bestalde, hainbat feministak Garateren aurrean protesta egin zuten eguaztenean, udal txerara lanera joan zenean. Dimisioa eskatu zioten aurrez aurre, eta "erasotzaile" deitu ere bai, besteak beste. Mezu horregatik pankartak eta pintadak agertu dira egunotan Durango kaleetan.



Garateri udal liberazioa kentzea proposatu du EH Bilduk.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2017ko martxoaren 10a
14. urtea - 668. alea

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua:
Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Bizenta Mogel idazle markinarraren izena ipini diote Durangoko Udal Bibliotekari

Martxoaren 8a aprobetxatuta inauguratu dute Mogelen omenezko plaka bibliotekaren sarreran

DURANGO Markel Onandia Durangoko Udal Bibliotekari Bizenta Mogel idazlearen izena ipini zioten ofizialki eguazteenan, martxoaren 8a aprobetxatuta. Mogelen omenezko plaka baten inaugurazio ekitaldia egin zuten udal ordezkariak eta kontseiluko zenbait kidek. PPko Fran Garate ez zen egon, baina kontseiluko kide ez izatera, ez zegoelako gonbidatuta; PPko beste kide bat gonbidatu zuten.

Udaleko berdintasun kontseiluak bultzatutako ekimena da herriko guneei emakume izena ezartzearena. Momentuz, herriko hiru leku daude zehaztuta. Udal Biblioteka Bizenta Mogel idazle markinarrari eskaini diote; herrikoa izan ez arren, euskaraz idatzi zuen lehen emakumea izan zen, eta kontseilukoek balia eman diote gertaera horri.

Musika eskola ondoko parkeak Aurora Abasolo soprano durangarraren izena edukiko



Eguazten eguerdian egin zuten Bibliotekaren izen berriaren inaugurazioa.

du aurrerantzean, eta Arte eta Historia Museoen atzekoak Benita Uribarrena, faxismoaren aurkako borrokalari durangarrarena.

“Bidegabekeria historikoa” Aitziber Irigoras alkatearen eta Pilar Rios alkateordearen arabera, historian zehar hainbat emakumeren lana “era sistematikoan ezkutatuta” egon da,

Emakume izenak “kalean eta historian” egotea gura dute, “ondorengoek jakin dezaten”

eta “bidegabekeria historikohori” amaitzeko helburua dute. Emakume izenak “kalean eta historian egotea” gura dute, “ondorengoek jakin dezaten aurrekoek zer egin zuten”.

19.000 bisitari baino gehiago eduki ditu XII. Aukera Azokak

DURANGO M.O.

Joan zen asteburuan XII. Aukera Azoka egin zen Landako Gunean, Dendak Bai merkatariekartearen eskutik. Egun batzuk pasatuta, balorazioa egin dute, eta 19.000 bisitari baino gehiago jaso dituzte. Gainera, salmentekin ere gustura agertu dira merkataria. Beraz, balorazio positiboa egin dute aurtengo edizioaz.

26 saltokik parte hartu zuten azokan, eta, orokorrean, aurreko edizioetako salmentak mantendu direla jakinarazi dute. Dendak Bairen ustez, azoka honek erreferente izaten segitzen du, Durangon eta Bizkaia osoan antzerako ugari egin arren.

Diseinu berria

Bestalde, aurreko azokari diseinu aldaketa egin diote, eta uste dute erakargarriagoa izan dela bezeroentzat. Hala ere, hobetzen jarraitzeko asmoa agertu du Dendak Bai elkarteak.

San Antonio-Santa Ritako urtemugaren erakusketa

Ikastetxeko argazki zaharrak daude Museon



Ikastetxeko talde baten argazki zaharra, Arantzazura egindako irteeran.

DURANGO M.O.

San Antonio-Santa Rita ikastetxeak 150 urte bete ditu aurten, eta hori ospatzeko ekitaldien artean, erakusketa bat ipini dute Arte eta Historia Museon. Martitzenean zabaldu zuten, eta bi fasetan garatuko da. Lehengoan, ikastetxeko artxiboko argazki zaharrak, egongo dira ikusgai. Bigarrenetan, martxoaren erdialdetik aurrera, ikasle eta irakasleen argazkiak izango dira erakusketaren oinarria.

Klaratar mojak duela 400 urte etorri ziren Durangora, eta 1867an ikastetxea zabaltzea erabaki zuten. Andrentzako Bizkai-ko lehen eskola izan zen, hasieran barnetegi lez funtzionatzen. Duela 18 urte, ardura utzi eta kooperatiba bihurtu zen.

Emakumea eta osasuna, umore ikuspegitik

MALLABIA J.D.

Oihulari Klown konpainiak *Molestias Clownicas* antzezlan eskainiko du gaur, 20:00etan, Kontzejuzarren. Emakumeek osasunagaz duten hartu-eman alderdi ludiko batetik lantzen du ikuskizunak. Anbulatorio bateko itxarongelan dagoen Pauxa pailazoak umore ikutuagaz plazaratuko ditu estresa, argaltzeko dieta, ginekologorako bisita eta antzerako egoerak. Mallabiko Nahikari emakumeen elkarteak da ekimenearen antolatzailea.

Museoko gela berriko lanak aurrera, apurka

MAÑARIA J.D.

Hontza Museoa handitzeko lanetan dabilta. Bigarren solairuan beste gela bat irekitzea da asmoa, eta dagoeneko obra zibila burutu dutela adierazi dute museoko arduradunek. Gela bera egokituta dago, eta bertan jartzeko beira-arasa berrien zain daude. Ekainean 30 urte egingo ditu museoak eta epemuga hori buruan dutela dabilta lanean. Gela berri horrek museoren berregituraketa bat eskatuko du, eta hori diseinatzen ere badabilta.

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Durangoon babes hartu duten errefuxiatuek asilo eskaera egingo diote espainiar estatuari

Joan zen egunean Kurdistango 7 errefuxiatu agertu ziren Elorrion, kamioi batean ezkatatuta

DURANGALDEA M. Onaindia
Kurdistanetik ihesi, kamioi baten barruan ezkatatuta agertu ziren zazpi errefuxiatu joan zen eguen iluntzean, Elorrion. Euren artean lau adin txikiko zeuden. Egoeraz jabetzean, kamioi gidariak Ertzaintzari abisu eman zion, eta larrialdi zerbitzuek artatu zituzten gero. Osasunez ondo zeuden guztiak. Gerratik ihesi zetozela argitzean, protokoloa aktibatu eta Durangoko Udalak larrialdietako etxe bi ipini zituen euren esku. Hantxe daude babes hartuta, eta errefuxiatuen aldeko CEAR-Euskadi elkarteak baieztatu duenez, asilo politikoa eskatuko diote Espainiar estatuari. Hileak iraun ditzakeen prozesu bat hasiko da orain. Durangoko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak hilero elkarretaratzeak egiten ditu, eta joan zen zapatuan berezia izan zen.

Durango zein Elorriko arduradun politikoei ere babesa erakutsi diete. "Errefuxiatuei merezi eta behar duten harrera bermatu diegu", adierazi du Aitziber Irigoras Durangoko alkateak. Bestalde, Elorriko alkate



Zapatuan dozenaka herritar batu ziren Andra Mariko elkarretaratzean.

Idoia Buruagak errefuxiatu familiaria "elkartasun osoa" helarazi dio. "Familia batek bere jaioterria utzi eta biziraupena bermatzeko mundu erdia zeharkatzeko prest dagoen bitartean, beti izango gaituzte bidelagun".

CEARen kritika

Kurduen gaiak hedabideetan berba larregi egiten dela uste

du errefuxiatuei babesa eta laguntza ematen dizkion CEAR elkarteak. Gaia normalizatzeko beharra dagoela uste du kurduen kasua lantzen dabilen Patricia Barcena abokatuak, azken egunetan sortutako eragin mediatikoaren ostean. "Uste dugu dimentsio handiegia ematen ari zaiola kasu honi, egoera lasaitzeko beharrezana dago.

Pertsona hauen pribatutasunera deia egiten dugu, euren segurtasuna bermatzearen alde", esan du Barcenak.

CEARen arabera, Espainiar estatuan 10 babes eskaeratik 7tan ezezkua ematen da. "Zuhurtzia eskatzen diegu beraien egoeraren inguruan interesa azaldu duten aktore guztiei", esan du elkarteak.

Pintxo lehiaketa antolatu dute Durango eta Iurretako 21 tabernatan



Iurretako La Bodeguilla taberna da lehiari ibiliko denetakoa bat.

DURANGALDEA M.O.

Lehiaketa gastronomiko berria etorriko da Durangora eta Iurretara martxoko azken asteburuan, hilaren 30etik apirilaren 2ra bitartean, hain zuzen ere. 21 taberna eta jatetxe parte hartuko dute *Jangodot* izeneko lehiaketan, eta horien pintxo bereziak dastatu ahal izango dituzte herritarrek.

Gainera, lehiaketan eragina edukiko du bezeroen iritzia. Izan ere, euren botoekin 300

euroko sari bat banatuko dute. Bestalde, epaimahai profesional batek herri bakoitzeko pintxorik onenari beste 300 euro emango dizkio.

Liburuxkagaz

Herritarrentzat liburuxka batzuk prestatuko dituzte, tabernen eta euren pintxoaren informazioagaz. Liburuxka hori edukitzea derrigorra izango da botoa emateko, eta bertan sailkatutako guneetatik bitan gutxienez, pintxo bi probatzea ere eskatu dute arduradunek.

Udalen babesa du ekimenak, eta Kortabitarte sukaldariak daude sustatzaileen artean.

Larrialdietako diru-laguntzen eskatzaile taldea %6 txikitu da

DURANGALDEA M.O.

Amankomunazgoak kudeatzen dituen Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen eskatzaile kopurua %6 txikitu zen 2016an. 28 pertsona edo familia gutxiagok eskatu zituzten laguntzaren bat. Hala ere, eskatzaileen artean banatutako laguntza handitu egin zen; guztien artean 46 tramite gehiago egin zituzten, 2015ean baino %7 gehiago.

Gastua kubritzeko, Jaurialditzak 443.000 euroko partida bat eman zuen, eta Amankomunazgoak 109.000 euro ipini behar izan zituen, beharrezanera ailegatzen ez zelako.

Estatistikak kontuan hartuta, atzeritarren kopurua %1 bajatu zen, eta, ostera, bertakoena igo, % 9. Eskatzaileen %46,32 dira atzeritarrek, eta %53,67 bertakoak.

Errigorako produktuak, ekologikoak ere bai aurten

DURANGALDEA M.O.

Martxan dago Errigora ekimeneko beste kanpaina bat, eta nobedadeak dakartza, gainera. Izan ere, produktuak eskatzeko orduan, ekologikoak ere aukeratu ahal izango dituzte interesdunek. Martxoaren 14ra arte eman ahal da izena, herririk herri ipinitako guneetan edota *errigora.eus* webgunean.

Nafarroa hegoaldeko oliba olio eta kontserbak egongo dira eskaintzan, eta eskaera aldi berean egin behar da, aurreko edizioetan aparte egin arren. Auzolanean oinarritzen den proiektua da Errigora, helburu bi dituen: Nafarroa hegoaldeko nekazariei laguntzea eta etekinaren zati batez euskalgintza sustatzea.

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIEN
ZAINTZEN

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 IURRETA
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194



Iazko apirilean egindako protestak.

Euskotrenek Durangaldeko eremutik atera ditu berriro Berriz eta Zaldibar

Eskualdeko gainontzeko herritarrek baino gehiago ordaintzen dute bidaiako

DURANGALDEA M.Zuazubiskar Berrizko eta Zaldibarko udalek jakitera eman dutenez, Euskotrenek zonifikazio berria onartu, eta laugarren zonaldeetik atera ditu berriro bi herriak.

Duela ia urtebete, Euskotrenek zonifikazio aldaketa egin zuten, Berriz eta Zaldibar laugarren zonaldeetik bosgarrenera pasatuz. Horrek bi herrietako erabiltzaileei Durangaldeko gainontzeko herritarrek baino gehiago ordaindu behar izatea ekarri zien, eskualdeko gainon-

tzeko herriak laugarren zonaldean baitaude.

Hala ere, bi herrietan egindako protesteei eta udal biek jarritako erreklamazioei esker, Euskotrenek berriro ere laugarren zonaldera pasatu zituen bi herriak ekainean, behin-behinean.

Baina aste honetan Berrizko eta Zaldibarko udalek jakitera eman dutenez, Euskotrenek zonifikazio berria onartu du eta, berriz ere, bosgarren zonaldera pasatu dituzte. "Oso haserre

gaude. Gure erreklamazioei kasurik egin gabe, tarifakazioa aldatu dute. Hala ere, herri biok tarifa zuzenak lortzeko lan egingo dugu", adierazi du Orland Isoird Berrizko alkateak.

Horrez gain, Bizkaibuseko bidaietan ere Durangaldeko gainontzeko herritarrek baino gehiago ordaindu behar dutela jakitera eman dute.

Bestalde, garraio publiko bidezko baten alde egiteko, elkarretaratzera deitu du gaurko Zaldibarko EH Bilduk

Futbolari eta politikarien babesak jaso du galdeketak

Zornotzako 14 kargudun galdeketaren alde daude

DURANGALDEA M.O. Maiatzaren 7an, Gure Esku Dagok antolatutako herri galdeketak burutuko dira Durangon, Zornotzan, Elorrion, Abadiñon eta Zaldibarren, eta deialdi horiek herritarren babesak hartzen doaz. Asteon, adibidez, hainbat futbolari eta politikarik bat egin dute ekimenagaz.

Joan zen asteburuan, Durangoko Kultureko eta Ezkurdiko B taldeek derbia jokatu zuten Tabiran, eta pankarta bat atera zuten zelaira futbolariak, galdeketaren alde. Argazkia atera zuten atxikimendua erakusteko. Zornotzan, bestalde, Andoni Agirrebeitia alkateak eta hamahiru zinegotzik talde ar-

gazkia egin zuten azken osoko bilkuran, eta Gure Esku Dagok horren berri eman du.

Kultureko eta Ezkurdiko B taldeek derbia jokatu zuten Tabiran, eta pankarta bat atera zuten

Berbaldia, Durangon

Durangoko Gure Esku Dagok kanpainan jarraitzen du, eta Pako Letamendia irakaslearen eta David Fernandez CUPeko ki-dearen arteko solasaldia iragarri du biharko. 12:00etan hasiko da, Landako Elkartegian.



Kultureko eta Ezkurdiko jokalaria, Tabiran, pankartagaz.

Gizon bat atxilotu dute Otxandioko lapurretekin lotura duelakoan

Ikerketa oraindik irekita dagoela azaldu dute Ertzaintzako iturriek

OTXANDIO J.Derteano Iaz Otxandioko komertzio eta lokaletan izandako lapurrete-tan parte hartu zuelakoan, Durangoko ertzain-etxeko agenteek 28 urteko gizonetako bat

atxilotu zuten, joan zen domekan, Bilbon. Ertzaintzak aurre-eramandako ikerketaren ondorioz atxilotu duten pertsonari ondasunaren kontrako delitua egotzen diote.



Artekale kalean daude Otxandioko komertziorik gehienak.

Ertzaintzak jakinarazi duenez, ikerketak oraindik irekita darrai, eta lapurretetan inplikata egon daitezkeen beste pertsona batzuen bila dabilta.

Iaz, urtarriletik irailera, Otxandion egindako 13 lapurreten salaketak jaso zituzten. Ikerketa hasi zutenean, lapurretek antzerako ezaugarriak zituztela ohartu ziren, eta hortik ondorioztatu zuten lapurreta denak lagun talde berak egindakoak izan zitezkeela.

Lapurretekin kezkatuta zuden herriko ostalari eta komertzioetako jabeak. Horren harira, aurtengo urtarril amaieran Durangoko ertzain-etxeko ordezkariak ostalariekin eta udal ordezkariekin batu ziren, ikerketa horrek eurentzat "lehentasuna" zuela adierazteko.

Txakurren jabeei zuzendutako panelak jarriko dituzte parkean

IZURTZA J.D. Santo Tomasen dagoen umeen jolaslekuaren inguruan, txakurren jabeei zuzendutako panelak jarriko dituzte. Txakurren ugabazabei parkea txukun mantentzeko eskatzea izango da panel horien mezu nagusia, udal arduradunek azaldu dutenez. Kartelak eskatuta daude, eta laster dira jartzekotan.

Kartel horiekin batera, informatiboa den beste bat ere jarriko dute. Panel hori handiagoa izango da, eta umeen parkearen gaineko askotariko informazioa jasoko du: parkea zelana sortu zen, umeak jolastu daitezkeen jarritako jolasak zer funtzio duten... Txakurren jabeei bideratutako kartelak jartzen dituzten unean jarriko dute beste panel informatibo hori ere.

Nagusien elkarteak urteko batzarra egingo du domekan

GARAI J.D. San Miguel Garaiko Nagusiak elkarteak urteko batzarra egingo du domeka honetan, Otea Loran txokoan. 11:00etan jarri dute lehenengo deialdia, eta 11:30ean bigarrena.

Gai ordeneko punturik garrantzitsuena urteko kontuak onartzea izango da. Urteko balantze ekonomikoaren gaineko xehetasunak emango dituzte. Udaleko eta Aldundiko diru-laguntzak eta bazkideen kuotak dira nagusien elkarteak diru iturri nagusiak.

Ondoren, aurtengo urterako ekintza proposamenak jasoko dituzte. Azkenik, zuzendaritza batzordean sartu gura duen boluntariorik balego, pauso hori emango lukete. Bertaratzen diren denentzat luntxa egongo dela adierazi dute.

Anbotoren **lagunak**



**Egin zaitez
Anbotoren Lagun,
eta atera etekina
txartelari!**

**Babestu proiektua urtean
30 euroren truke**

Honako denda eta zerbitzuek deskontuak aplikatuko dizkiete ANBOTO txartela duten erabiltzaileei:

- A-METZ DEKORAZIOA · BETIXU JATETXEA · COLOR PLUS · EPOCA SUKALDEAK · EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
- GIMNASIO ZIRKIN · HITZ LIBURU-DENDA · HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA · ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA
- IURRETA KOPISTEGIA · KATXARRO JATETXEA · KIROL ERROTA GIMNASIOA · LANDAKO OPTIKA
- MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA · NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA · OPEN KLUB · PLATERUENA KAFE ANTZOKIA
- UNAMUNZAGA ETXEBARRIA · HORTZ-KLINIKA · UNDARRI BIKE · URRIKE LIBURU-DENDA · UR URDAIBAI

Gozategik kontzertua eskainiko du, sortu zeneko 25. urteurrenean

Gazte Eguna ospatuko dute gaur eta bihar



Urtero bazkari jendetsua egiten dute Gazte Egunaren barruan.

ZORNOTZA J.Derteano
Zornotzako Gazte Egunaren bosgarren aldia ospatuko dute gaur eta bihar. Musikagaz hasi eta amaituko duten ospakizuna izango da. Gaur, 21:35ean, Inun musikari zornotzarraren doinuek hartuko dute Zelaieta Parkea, eta bihar Gozategi, Eskean Kristo eta La Basu taldeen kontzertuak izango dira toki eta ordu berean.

1992an sortutako Gozategi taldeak 25 urte egin ditu aurten. Urte hauetan denetan, ezagun egin dituzten *Nor-nori-nork* eta *Emoixtaxux muxutxuek* abestiak, besteak beste, zuzenean entzuteko aukera egongo da. La

Basu rap-kantari bilbotarrak eta Eskean Kristo arratiarrek osatuko dute musika gaua.

Biharko eguna txupinazoagaz hasiko dute. 12:05ean umeentzako jolasak prestatuko dituzte Zelaieta Parkean dagoen karpan. Ondoren, 13:00 inguruan, trikitalariek alaitutako poteoa hasiko dute Urgezoz. Bazkariaren ostean, trikikantufest jaia egingo dute. 18:05ean, jai egunak aurrera jarraituko du Luis Urrengoetxea kalean, elektrotzarangaren laguntzagaz. Musika kontzertuen aurretik, Bizkargi 1937 Zarpantzarrek taldearen doinuek hartuko dituzte kaleak.

Gernikako Arbolaren kimu batek Santi Onaindia gogoratuko du

Udabarri Dantza Taldearen ekimenez landatuko dute, martxoaren 18an

ZORNOTZA J.Derteano
Sortu zeneko 50. urteurrena ospatzeko ekintza sortaren barruan, Udabarri Dantza Taldeak Santi Onaindia gogoratzeko ekitaldia antolatuko du martxoaren 18ko zapatuan. Hasierako urteetan, Onaindiaren laguntza, babesa eta sostengua garrantzitsuak izan ziren dantza taldeak aurrera jarraitu zezan. Orain, dantza taldea izango da karmeldar apaizaren oroimena betiko hilezkortuko duena. Egun Larreako komen-

tu inguruan Santi Onaindia gogoratzeko dagoen bustoaren alboan Gernikako Arbolaren kimu bat landatuko dute bere omenetan.

Martxoaren 18an, 11:30ean, Larrean dagoen haur hezkuntzako eskolatik kalejiran joango dira komentura. Bertara helitzean, 12:00etan, dantza saioa eskainiko du Udabarri taldeak eta ondoren arbolaren kimua landatuko dute. Aldundiko eta Zornotzako Udaleko ordezkariak ere izango dira.

Euskal kulturaren zaindari
“Hasierako urteetan bere laguntza oso garrantzitsua izan zen, eta harrezkero ere harreman estua izan zuen dantza taldeagaz”, azaldu du Udaberriko Igone Idigorasek. Santi Onaindiak (1909-1996) 52 urte eman zituen Larreako karmeldar komentuan. Euskara eta euskal kultura sustatzeko lan handia egin zuen. Idazle eta itzultzaile jardun zuen, hainbat lan kale-ratu zituen eta 1979tik ohorezko euskaltzain izan zen.



Santi Onaindia —ezkerrealdean— Udabarriko kideekin.



Espetxea bizitako emakumeen esperientziak entzuteko aukera

ZORNOTZA J.D.
Zornotzako Ziztada Guneak eta Zornotzako Talde Feministak elkarlanean, solasaldi eta hitzaldi bana antolatu dute datorren astean. Datorren asteko

Solasaldia, eguenean, 18:30ean hasiko da Luis Urrengoetxean Ziztada Guneak duen lokalean

eguztenean, 18:30ean, Zuriñe Rodríguezek *Borroka armatua eta kartzelak* izeneko liburua aurkeztuko du. Hurrengo eguenean, eguenean, 18:30ean, solasaldi bat prestatu dute. Bertan, espetxea bizi izan duten eta bizi duten zornotzar emakumeen bizipenak ezagutu ahaliko dira Ziztada Guneako lokalean.

Herri ortuetan produktu ekologikoak bultzatuz

Laster egongo dira erabiltzeko prest herri ortuak

ATXONDO M.Zuazubiskar
Herri ortuetan produktu ekologikoak bultzatuko dituztela jakitera eman zuten, joan den asteko ezohiko udalbatzarrean, EH Bilduko zinegotziek.

Gobernu taldeko kideen aldeko botoekin, herri ortuetako funtzionamendua erregulatuko duen araudia onartu zuten.

Bertan zehaztu zuten, 3.000 metro karratu dituen eremua laster egongo da erabiltzeko moduan. Atxondoko igerileku ondoan dagoen lursailean, 50na metro karratuko 20-30 ortu egingo dituztela jakinarazi zuten.

Ordenantzan zehaztu dute, herri ortuetan produktu ekologikoen erabilpena bultzatuko dute, eta sasoiari sasoi landareak landatzeko baimena baino ez da egongo.

Horrez gain, herri ortuetatik lortzen diren produktuak ezin

izango direla salmentarako izan jakitera eman zuten.

Arau-haustek

Bestalde, bost urteko epean —horien ondoren, urtetik urtera epea luzatzeko aukera izango du Atxondoko Udalak—, herri ortuetako jabe izango direnek hainbat arau bete beharko dituzte udal instalazioak erabiltzeagatik. Esaterako, urtean 40 euro ordaindu beharko dituzte, esleitutako partzela txukun eduki beharko dute, langileen esanak errespetatu beharko dituzte, partzeletan animaliarik ezingo dute eduki...

Arau horiek bete ez epean, udalak 300 eurora arteko isunak jarriko dituela, eta kasurik okerranean adjudikatutako lurra jabeen kenduko dizkietela jakitera eman zuen ordenantzan gobernu taldeak.

Mendizaleentzako film emanaldi eta berbaldiak

Liburutegi zaharrean izango dira emanaldiak

ZALDIBAR I.Esteban
Martxoaren 16an eta 23an izango dira udal liburutegiak hila-bete honetarako antolatu dituen mendizaleentzako liburutegi zaharrean, doan eskainiko duten, emanaldiak.

Martitzenean batuko da Kultura Kontseilu berria

ZALDIBAR I.E.
Martxoaren 14an, 19:00etan, Liburutegi Zaharrean egingo dute Kultura Kontseilu berriaren lehenengo batzarra. Herriko hainbat elkartetako kideei egin

nita Patagonia, Annapurna III, Dodo's Delight eta *Freedom Under Load* filmak izango dira Liburutegi Zaharrean, doan eskainiko duten, emanaldian.

Martxoaren 23an, 18:30ean, *Travesías polares: transantártida y Groenlandia* ikus-entzunezkoa eta berbaldia eskainiko ditu Mikel Zabalzak.

dieta batzarrerako gonbidapena, eta kultur arloko aholku batzorde horretan parte hartu gura duten zaldibartar guztiei ere egin diete martitzeneko hitzordura bertaratzeko deia.

Zaldibarko Udalaren kultur arloko jarduna erabakitzeke orduan, herritarren parte hartzea bultzatuko du kontseilu horren sorrerak, eta herritarren kultur arloko ekarpenak jasoko ditu.

Neurriak hartu arren, galdategiko hautsa ez da oraindik desagertu

Jaurlaritzak eskatutako neurriak hartu dituzten arren, Garbi enpresaren isurketak ez dira amaitu

ABADIÑO Itsaso Esteban
Burdina galdatzen dute Muntzaratz auzoko Garbi enpresan, eta udalak eskatuta azaroan egin zuten azterketa baten arabera, handik etorri da Muntzaratz auzoko zorua hauts beltz batez estali izan duen kutsadura. Udalak eskatuta baita, Jaurlaritzako Ingurumen Sailak enpresa ikuskatu zuen azaro amaieran, eta kutsadura ekiditeko hainbat neurri hartzea agindu zion enpresari. Andres Fernandez Abadiñoko Udaleko arkitekto teknikoaren arabera, Ingurumen Sailak eskatutako neurri guztiak hartu ditu enpresak. Tximinien iragazkiak aldatu, harea-biltegia hermetikoki itxi, kamioiek harea deskargatzen duten lekua aldatu, patioen garbiketaren maiztasuna gehitu, eta kanpoko harea-dukiozia kendu dute, besteak beste.

“Ikusita arduradunek eskatutako neurriak hartu dituztela, baina hala ere arazoa ez dela guztiz konpondu”, Abadiñoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak egoeraren jarraipena egiten segituko dutela adierazi du Fernandezek. Arkitekto teknikoak aurreratu du enpresaren instalazioak sakonago aztertzeko asmoa daukela Jaurlaritzak, nahiz eta bisita horretarako datarik ez duten oraindik ipini.

Udaleko teknikarien arabera, Ingurumen Sailak eskatutako neurri guztiak hartu ditu enpresak

Fernandezek azaldu du, enpresak hartutako neurrien eraginkortasuna baloratzeko, auzo-



Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren aginduz, tximinien iragazkiak aldatu ditu Garbi galdategiak.

tarren iritzia ere jaso zutela urte hasieran, eta denerikoak izan zirela erantzunak. “Batzuek diote igartzen dela hobekuntza, eta beste batzuek, aldiz, beraien etxeetako balkoiak belztuta agertzen direla orain ere. Guk gure bidez ikusi ahal izan duguna da gutxitu egin dela kutsadura, baina oraindik ere gertatzen direla isurketak”, adierazi du.

Fernandezek nabarmendu duenez, egindako azterketen arabera isurketak ez dira osasunerako kaltegarriak. Abenduan egin zuten ikerketaren arabera, 10 mikra baino gehiagoko partikulak dira Muntzaratzko zoruan pausatzen direnak, eta ez dago arriskurik horiek arnasteko. Egindako azterketen arabera, legeak ezarritako parametroen

barruan dago Muntzaratzko airearen kalitatea: ona edo oso ona da, neurketen arabera.

Enpresak hainbat aldaketa egin eta isurketak gutxitu diren arren, arazoa ez da guztiz konpondu

Aste Santua baino lehen amaituko dituzte Askondo kaleko lanak

Joan zen astean hasi zituzten kalearen itxura guztiz aldatuko duten lanak



Askondo kalean berriztu dituzten 850 metro koadroetatik 350 estali egingo dituzte

IURRETA Aitziber Basauri
Aurreikusitako baino hilabete eskas geroago, baina hasi dira bost metroko altuera izango duen estalkia jartzen Askondon, eta Aste Santua baino lehen egongo da prest. Apirilaren hasieran amaituko dituzte lanak, Iñaki Totorikaguena alkateak argitu duenez: “Lanek itxura ona dute eta obra amaitzeko gogoz eta ilusioz gaude”. Kalearen itxura guztiz aldatuko duen lanotarako

480.000 euroko inbertsioa egingo du Iurretako Udalak.

Askondo kalean berriztu dituzten 850 metro koadroetatik

Kalearen itxura guztiz aldatuko duen lanotarako 480.000 euroko inbertsioa egingo dute

350 estali egingo dituzte, luzeran 30 metro eta zabalera 12 metro dituen aterpeagaz. Ekitaldi edo momentu jakin batzuetan alboetatik ixteko aukera ere egongo dela diote udal arduradunek.

Gune horretan ur-zurrustak egongo dira, udarako edo bero egiten duen egunetarako, eta Dantzari auzuneko etxebizitzaren horma batean eskalada-horma “txiki” bat jarriko dute, “umeek jolasteko”, argitu dutenez.

Elkarlanean arituko dira udala eta merkatariak

BERRIZ M.Zuazubiskar
Berrizko Udalak eta herriko merkatariak lankidetzan arituko direla jakitera eman dute, prentsa ohar bidez.

Udaletik jakinarazi dutenez, herriko merkatari elkarteak 2.000 euroko diru-laguntza eman dio webgunea sortu dezaten. Webgunea sortzeaz gain, diru hori merkatari elkarte-

2.000 euroko laguntza eman dio udalak Berrizko Merkatari Elkarterari webgunea sortzeko

ren gune berriari zabalkundea emateko ere izango dela adierazi dute.

Horrez gain, Berrizko Udalak eta herriko merkatari elkarteak konpromisoa hartu dute interesgune bateratuak dituztenean elkarlanean jarduteko.

Bestalde, onura orokorreko guneetan lankidetzan arituko direla adierazi dute udalak eta merkatariak.

Pinu-beldarraren larbak kontrolatu gura dituzte

BERRIZ M.Zuazubiskar
Sasoi honetan pinu-beldarraren larbak ugaritu egiten direla ikusita, Berrizko Udalak larba hauek kontrolatzeko sistema berri bat jarri du martxan.

Udalak jakitera eman duenez, herriguneko oinez bide inguruetan dauden udal jabe-kuntzako pinuetan jarri du martxan sistema berria, eta honen helburua pinuetako larbak ez hedatzea da.

Sistema berezia

Berrizko Udalak adierazi duenez, pinuei hesi fisiko bat sortzen duen eraztun bat jarri diote. Horrela, sistemak pinu-beldarraren larbak harrapatzen ditu enborretik behera doazenean.

Behin larbak hesira helduta larbak poltsa batean harrapatuta gelditzen direla jakitera eman dute.

Martxan jarri duten sistema berri hau “erangikorra” dela eta ingurumenari dago-kionez “begirunetsua” dela adierazi dute Berrizko Udaleko kideek.

Gazteak ahalduntzeko prozesu parte-hartzailea, laster martxan

Gazteek herrian sumatzen dituzten gabezien berri eduki gura du udalak



Aste Santua baino lehen jarriko dute martxan prozesua.

ELORRIO M.Zuazubiskar Herriko gazte eta nerabeak ahalduntzeko asmoz, prozesu parte-hartzailea jarri dute martxan Elorrioren.

Prentsa ohar bidez udalak jakitera eman duenez, 12 urte-tik 20 urtera bitarteko gazteek herria nola ikusten duten jakin gura dute. Gainera, prozesu honen bitartez elorriar gazteak ahaldundu gura dituztela adierazi dute.

Elorrioko Udalak jakitera eman duenez, herriko gazteekin Aste Santua baino lehen hasiko dira lanean, eta ikasturtea bu-

katu aurretik diagnostiko bat izatea gura dutela adierazi dute.

“Ezinbestekoa iruditzen zaigu Elorrioko nerabe zein gazteek herrian sumatzen dituzten gabeziak zehaztea, beraiek dituzten premien berri jakitea eta beraiei proposamenak zehaztea”, adierazi du Maitane Lopez gazteria zinegotziak.

Ekintza plana

Behin gazteekin diagnostikoa burututa, urte amaierarako ekintza plan bat osatuta izateko asmoa daukatela esan dute gobernu taldekoek.

Aurrekontuetan Elorrioko Udalak gazterien atal propioa dauka, eta bertan zenbait diru-atl dauden arren, arlo hau eduki gehiagogaz osatu gura dutela jakitera eman dute. “Hori dela-eta, gazteekin eta nerabeekin batera ekintza plan hau burutu gura dugu, hurrengo urteetan betetzen joan gaitezen”, gaineratu du Idoia Buruaga Elorrioko alkateak.

Bestalde, martxan jarriko duten prozesu hau burutzeko, hainbat erakunderen proposamenak jaso dituztela adierazi dute ohar bidez.

Auzo-taxiaren “gehiegizko” erabilera mugatu gura dute

ELORRIO M.Z

2012tik, herrigunea eta auzoak batzeko asmoz, auzo-taxia dago martxan Elorrioren. Udal gobernuak jakitera eman duenez, gehiengoak zerbitzuaren erabilera ona egiten duen arren, kasu batzuetan eman den “gehiegizko” erabilerari amaiera eman gura diote.

“Auzo-taxiaren helburua argia da, pertsona nagusiak, elbarrituak, gidabaimenik gabekoak... herri gunetik isolatuta ez gelditzea”, adierazi du

Orain arte bezala, bi euro ordainduko dituzte erretiratuek, elbarrituek eta gidabaimen bakoek

Idoia Buruaga Elorrioko alkateak. “Hala ere, kasu batzuetan gehiegizko erabilerak egin direla ikusita, muga batzuk jarritzea erabaki dugu”, gaineratu du alkateak.

Buruagak azaldu duenez, zirriborro bat landu dute, eta elbarrituek, gidabaimenik gabekoek, 65 urtetik gorakoek eta diru-sarrera konkretu bat baino gutxiago dutenek bi euro ordainduko dituzte, eta gaintzeko herritarrek, berriz, bost euro.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIAN RIOS
SQ-2D



Hemen izango ote da?

Zurumurrua dabil Durangoko kaleetan. Hiri-kondaira delakoan daude batzuk, hemen ere gertatuko ote delakoan beste batzuk. Zurumurruren arabera, ondoko herri batzuetako herritarrek udaleko aurrekontuetan parte har dezakete, eta partida ekonomikoren bat nola bideratu ere erabaki dezakete. Ikusmina handia da; batzuek gogoeta egin dute, ea Durangon nolako izango ote den. Beste batzuk zain daude, foro bidez parte hartzera gonbidatzen duen bandoa euren atarian noiz jarriko; beste batzuk etxera helduko den galde-sorta baten zain daude, euren iritzia emateko. Udalerriko kontuak azalduko dietelakoan daude beste batzuk. Eszeptikoez ez dute ezer itxaroten.

Nork ote du arrazoa?

Ikusiko dugu herritarrek aukerarik duten iritzia emateko partidaren bateko gastuen lehentasunei dagokienean. Ba ote dakite herritarrek nola dauden udalerriko kontuak? Laster jakingo dugu, aurrekontuak lantzeko prozesua hasi baita oraintsu. Baliteke oraingoan berandu izatea, baliteke durangarrok prestatuta ez egotea parte hartu ahal izateko, edo baliteke gobernariak eurak ez egotea prestatuta. Hori bai, badakigu herritarrek gero eta gehiago parte hartu nahi dutela, jakin-min gehiago dutela herriko politika kontuak jakiteko. Pertsonak heldu egiten dira demokrazian, eta demokrazia gehiago garatzeko eskatzen dute. Institutio irekiagoak eskatzen dituzte, parte-hartzaileago eta gardenagoak.

**Erredakzioan itzulia*

DURANGALDEA ASTEON

Udal euskaltegiak JAEDi elikagai lagundu dio

DURANGO > Udal euskaltegiak azoka solidarioa antolatu zuen iazko abenduan. Ikasle eta irakasleek ekarritakoa saldu eta 345 euro batu zituzten. Diruagaz elikagaiak erosi eta JAEDera bideratu dituzte behar dutenen artean banatzeko. Sobera dagoen materiala ere eman dute. Arropa, aldiz, Caritasera eraman dute.

Ahoztar Zelaietak, ustelkeria berbagai

ELORRIO > Ahoztar Zelaieta kazetari, kriminologo eta idazleak *Ustelkeria Euskadin* izeneko hitzaldia eskainiko du martxoaren 16ko egunean, 19:00etan, Ateneon. Ustelkeriaren inguruan hainbat liburu idatzi ditu, *Kutxabank*, *el saqueo de Euskal Herria* tartean. Herriaren Eskubidea da hitzaldiaren antolatzailea.

Bihar euskara tailerra egingo dute Bolalekuan

OTXANDIO > Martxoaren 30ean Korrika Otxandiotik hasiko dela aprobetxatuta, euskararen kale erabilera sustatzeko pausoak ematen hasi gura du Korrikaren harira antolatu duten lan talde batek. Helburu horregaz, zapatuan, 10:00etan hasita, euskara tailerra antolatuko dute Bolalekuan.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902



> Berbaz

Roberto Bermejo Gomez de Segura | Ekopol taldeko kidea. Ekonomia eta enpresa zientzietan doktorea | Durango, 1941

“Abiadura handiko linea osoa hondamena da; porrot eginda beharko lukeen sistema da”

EHUko eta Bartzelonako Unibertsitateko ikerlariek osatzen duten Ekopol taldeak AHTari buruzko txostena egin du

> BERBAZ Aitziber Basauri

Ekopol taldeak egindako txosten batek dio —ELAk eta LABek eskatutakoa da txostena— AHTk “etengabeko diru-laguntza” beharko duela. Etekinak lortzea “ia ezinezko” jo dute. Ekopoleko taldekidea den Roberto Bermejok dio Espainiako abiadura handiko linea osoa “hondamena” dela, eta gogoratu du AHTak “arrakala soziala handituko” duela.

Diru-laguntza publikorik gabe AHTaren ustiaketan etekinak lortzea “ia ezinezkoa” dela dio Ekopolek egindako txostenak. Espainiako abiadura handiko linea osoa hondamena da: 20.000 milioi eurotik gertu dagoen itzelezko zorra sortzen ari da; urtean, 3.000 milioi eurotik gorako galerak ditu. Porrotera doan sistema da. Egia esan, porrot eginda beharko lukeena, sistema ekonomiko batek ere ezin du eta irauan galera ekonomiko irauten eta pilatuekin.

Zein eragin izango du Euskal Herrian?

Linearen araberakoak dira galerak. Adibidez, galera gutxiago ditu Madril-Bartzelona lineak. Neurri txikiagoan bada ere, baita Madril-Sevilla, Madril Andaluziako beste hiriburu batzuekin lotzen dituztenak, eta Madril-Valentzia ere. Gainontzeko lineetan galerak egundokoak dira. Tartean, ‘euskal Y’ a batzen duen iparraldeko lotura.

Etengabeko laguntza publikoa beharko du AHTak?

Galerak baditu, ezin du etorkizunean aurrera egin. Egia esan, galerek askoz handiagoak izan beharko lukete, diru-laguntzak jasotzen ari da-eta. Renfe prezioak ikaragarri jaisten ari da, baina metropoli-garraioa edo aldiriko-garraioa garestitzearen lepotik. Azken horiek zerbitzu publikoa dira, ez dute zertan errentagarriak izan, eta administrazioak diruz laguntzen die —Bilboko metroa da adibide bat—, baina Renfe aldiriko-trena garestitzen ari da abiadura handikoaren tarifa gutxitzeko dirua lortzeko; galerak ez daitezzen horren handiak izan.



Gutziz ilegala da hori, Europako araudiaren kontrakoa, eta erabat antisoziala. Baina ez dirudi estrategia emaitza onik ematen ari denik, oraindik bidaiari gutxi ditu-eta abiadura handiko lineak. Gainera, osatzeke dauden lineak—Extremadura, Andaluzia, iparraldeko linea...— izango dira defizitarioenak. Abiatu ahala defizita handituko da.

Gizarte ongizatean eragingo du, ezinbestean. Okerrera.

Zerbitzu publiko bat hondatuko da, diru-sarrerak sortzeko publikoa ez den zerbitzu baterako; orokorrean, era sistematikoa goan, klase sozial altuek erabiltzen duten zerbitzu baterako. Zelanbait, gutxien dutenei ateratzen diezu dirua, gehiago dutenei emateko, txartel merkeen itxuran. Arrakala soziala handituko du AHTak. Izan ere, exekutiboek, maila altuko turistek... erabiliko dute, batez ere. Langileek, azken finean, ez dute askorik erabiliko.

Inoiz ez da berreskuratuko egin den inbertsioa?

Hori segurutzat ematen da. Arzoa zein da? Ez dezala defizit gehiago sortu. Azkenean, hori ordaindu egingo dugulako, denok. Lotsaren autobideen nazionalizazioagaz gertatu da, ez

“*Denok ordainduko dugu gehiago, beste zulo bat gehiago estaltzeko*”

“*Inork ez du espero abiadura handian inbertitu den dirutza hori berreskuratzea*”

dela denbora asko: enpresa pribatuen zorrak bere gain hartu ditu estatuak. Kontuan hartzen badugu estatua zergen bidez hornitzen dela neurri handi batean, denok ordainduko dugu gehiago, zulo bat gehiago estaltzeko. Inork ez du espero abiadura handian inbertitu den dirutza hori berreskuratzea. Baina kontua da zorrak sortzen ari dela, eta diru sarreraren birbanatze negatibora derrigortzen duela: gero eta gehiago, zor hori ordaintzeko erabiltzen dira diru sarrerarik gehienak. Abidura handiaren nazionalizazioa hel-

tzen bada —beste biderik ez dut ikusten—, beste behin, bankuekin gertatu den lez, herritarrok ordainduko ditugu beste entitate batzuek eragindako kalteak.

Bidaiari kopuruan dago giltza?

Linea bat errentagarria izan dadin, martxan jarri eta lehenengo urtean, gutxienez, 10 milioi bidaiari eraman behar ditu. Eztabaidagarria izan daiteke, baina Europako Batasunak ere hala onartzen du hori: abiadura handiko linea bat bera ere ez da inolaz ere horretara helitzen. Madril-Bartzelona lineak sei milioi bidaiari izan zituen, eta iparraldeko loturak, kasurik onenean, 2,2 milioi izatea aurreikusitakoak. AHT betiko izango da defizitarioa. Datozen belaunaldiei utziko diegu zorra, hazi baino egingo ez den zorra. Hori gertatzen da SuperSurren, Artxandako tunelen eta beste azpiegitura batzuen kasuan.

Horretaz guztiaz jabetzen dira herritarrek?

Ez, ez zaielako azaldu. Egitasmo horregaz kritikoa garenok egindakoak ez dira normalean oinarritzko hedabideetan azaltzen. Hedabide handiak itsu dau de honen aurrean, ez da existitzen. Kasu maltzurak ere eman izan dira.

Ingurumenean izango duen eragina eta eragin politikoa eta kulturala ere aztertu dituzue.

Ingurumenari dagokionez, ikustea baino ez dago nola suntsituko duen paisaia. Zer esan akuiferoetan duen eragina. Lurraldearen, eta ondorioz naturaren nolabaiteko zatiketa bat da. Harrobiak topera ari dira lanean, mendiak suntsituz. Durangaldean agerikoa da. Eragin sozio-politikoari helduta, AHTk hiriburuak lotuko ditu, tarteko eskualdeak lotura horietatik baztertuz. Jaurlaritzak diruz lagunduko duela esan dute, eta horrek ondorioak ekarriko ditu.

Badu atzera bueltarik?

Arrazionaltasunaren ikuspuntutik, bai, baina politikoki ez dut inolako borondaterik ikusten. Zorra gehitu ahala, Espainiak zer egingo du? Zorra bere gain hartu? Nazionalizatu egingo ditu galerak, edo lanak gelditu eta Europagaz oso ondo lotutako trenbide sarea nola sortu aztertuko du? Hor dago gakoa.

AHTaren aurkako mugimendu soziala indarra galduz joan da.

Urteetako higadura eman da, emaitza positiborik gabe. Baina uste dut indar eta ahalegin handia egin dela ezezkoan, eta ez dela alternatibarik aurkeztu.

6.400 €

-tik aurrera
Etxetresna elektrikoak barne

MARTXOAREN
25era arte

“ARGIZ BETE ZURE
SUKALDEA”



SCHMIDT ABADIÑO

Murueta auzoa, z/g - 17B lokala

Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO

Tel.: 946 526 195 · info@schmidt-abadiano.com

www.schmidt-cocinas.es

SCHMIDT
Cocinas y Muebles de Hogar


ELURRETAN

Hamabi biribil hauetatik bi besterik ez dira eskuineko irudi handiari dagozkionak. Zeintzuk dira ?



ISPILUAREN AURREAN

Pelloziriren eta ispiluko bere islaren artean zazpi desberdintasun daude. Zeintzuk dira ?



Itzala

Zein da karramarro honi dagoen itzala? Bakarra da zuzena.





SUDOKUAK

	■		
		■	●
▲	◆		
		◆	

Osatu bi sudokuotako lauki zuriak, batean figura geometrikoak marraztuz eta bestean zenbakiak idatziz (1etik 4ra). Gogoratu elementu bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe, lerro eta area berde bakoitzeko.

3		1	
	2		
		2	
	1		3

HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu pampina errusiar hauek tamainaren arabera: handiena lehena izango da eta txikiena seigarrena.



3

www.plazanbazan.eus

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

JOLASAREN TXOKOA

Familian jolasteko beste modu bat!

/ MARTXOAK 22 / 17:00-18:30 /

Kantu-jolas tailerra

PLATERUENA KAFE ANTZOKIAN

IZEN EMATEA

martxoaren 13tik 20ra

berbaroren bulegoan

gazteak@berbaro.eus // 946 202 540

www.berbaro.eus





GREMIOEN GIDA



ITURGINTZA

Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



LEIHOAK

Leihoak 

ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA

Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO
info@ventanas-durango
Tel.: 652 736 339
www.ventanas-durango.com



ARKITEKTURA

**ARKI
TEK
SAN**

OBREN ZUZENDARITZA
PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
NEURKETAK, PLANOAK
ETA AURREKONTUAK EGITEA
ERAGINKORTASUN
ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

622 745 419
NIZETO URKIZU 12. ELORRIO
INFO@ARKITEKSAN.COM
WWW.ARKITEKSAN.COM

EIT
ITE

ERAIKUNTZEN
IKUSKAPITZA TEKNIKOA
AZTERKETA
259€tik AURRERA!



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goietta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura opaingarría.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



ZURGINTZA

leike aroztegia &
diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

ATERPE ARBOTZAK

EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Zuzeneko musika auzoetara zabalduko du egitarau berriak

‘Auzorik auzo’ programazio berriak hiru kontzertu ekarriko ditu Iurretako beste horrenbeste auzotara

> MUSIKA Itsaso Esteban

Auzorik auzo izenagaz ipini du te martxan zuzeneko musika Ibarretxe kultur etxetik eta herrigunetik haratago, auzoetara hedatuko duen programazio berria, Iurretan. Bihar, martxoaren 11n, izango da lehenengo hitzordua. Iaz *BiZi* diskoa aurkeztu zuen Etxe bakarlarri berriarri arituko da, 18:00etan, Oromiño auzoan.

Ibarretxe kultur etxean aurkeztu zuten, martitzenean, Iurretara Etxeren biharko emanaldia eta beste bi kontzertu ekarriko dituen egitaraua. Apirilaren 1ean egitarau horretako aurtengo azken emanaldia eskainiko duten Usue Martinez durangarrak eta Nerea Alza iurretarrak parte hartu zuten kultur etxeko aurkezpenean.

Lehenago bakoitza bere bakarkako proiektuetan ibili dira

Martinez eta Alza, eta duela urtebete elkartu ziren. “Elkarrerezag oso ondo moldatzen garelako eta harreman oso polita daukagulako, bide berriari elkarrerezag ekitea erabaki genuen”, kontatu du Usue Martinezek. Bi ahots eta bi gitarragaz, emanaldi akustikoa eskainiko dute musikari gazteek, apirilaren 1ean, Goiuria auzoan, 18:00etan.

Durangaldeko Etxe, Martinez eta Alzaren emanaldiez gain, Xabi Aburrizaga trikitilariarena ere jasotzen du Iurretako kultur programazio berriak. Orozketan arituko da Aburrizaga, martxoaren 18an, 18:00etan. Iaz kaleratu zuen *Keltik* diskoa aurkeztuko du Irkus Ansotegi panderojoleagaz batera.

“Ohituta gaude kultur jarduera Ibarretxe areto barruan edo herrigunean kokatzera, eta egitarau honeguz musika



Totorikaguena alkatea, Pili Jimenez teknikaria, eta Usue Martinez eta Nerea Alza musikariak, egitarauaren aurkezpenean.

auzoetara gerturatzea da helburua”, adierazi zuen Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak programazio berriaren aurkezpenean. Lehenengo edizio honetako hiru emanaldien ostean, luntxa eskainiko diete kontzertura doazen entzuleei.

· Auzorik auzo 2017 ·

Martxoaren 11n, Etxe

18:00etan,
Oromiño
San Markon

Martxoaren 18an, Xabi Aburrizaga

18:00etan,
Orozketa
antzinako eskolan

Apirilaren 1ean, Usue Martinez eta Nerea Alza

18:00etan, Goiuriako
Santi Kurutzen

BBK sariketarik kanpo geratu da Durangaldea, puntu erdigatik

Busturialdeko seikoteak lortu du BBK sariketako finalaurrekora igarotzea

> BERTSOLARITZA I. E.

Durangaldeko eta Busturialdeko bertsolariak kantatu zuten, eguaztenean, Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK txapelketako XXV. edizioaren lehenengo saioan. Puntu erdiko aldeetatik, Busturialdeko taldeak irabazi zuen (371.5 lortu zituen, eta 371 Durangaldeak). Beraz, Busturialdekoek lortu dute martxoaren

24an Zallan jokatu den finalaurrekorako txartela. Duran-

Busturialdeak 371.5 puntu lortu zituen; Durangaldea txapelketatik kanpo geratu da, 371 puntugaz

galdeko Ander Sarriugarte, Eider Gallastegi, Iruri Altzerreka, Xabier Barreña, Peru Astigarraga eta Gorka Pagonabarraga bertsolarien artean, aldiz, amaitu da txapelketako ibilbidea.

Datozen asteetan, beste hiru sailkapen proba eta bi finalaurreko jokatu dituzte martxoaren 31ko BBK txapelketako finalistak erabakitzeke.



Busturialdeak lortu zuen, eguaztenean, txapelketako finalaurrekoetarako sailkatzea.

Eskualdeko sortzaileen uzta oparoa Loraldian

Apirilaren 8ra arte Bilbon egingo duten jaialdian parte hartuko dute Durangaldeko hainbat artistak

> PROGRAMAZIOA I. E.

Durangaldeko sortzaileek presentzia nabarmena dute martxoaren 7tik apirilaren 8ra arte Bilbon, hirugarren urtez, egiten diharduten Loraldia programa kulturalaren barruan. Atzo, *Gorputza Eszenan* izenburuko solasaldian parte hartu zuen Berrizen bizi den Ander Lipus aktoreak, Onintza Enbeita bertsolariagaz, eta *Inun* musikari zornotzarrarena izango da Durangaldeko artista baten Loraldia festibaleko hurrengo parte-hartzea: *Hiri hori da hiri hau* emanaldia eskainiko dute, martxoaren 16an, 19:30ean, Azkuna Zentroan, Lutxo Egia idazle bilbotarrak eta *Inun*-ek.

Elorrioko Logela Multimedia taldeak ere parte hartuko du Bilboko Loraldian. *Drag.E* lan berria estreinatuko du, martxoaren 19an, 12:30ean, Azkuna Zentroan. Ume zein helduei

zuzenduriko ikuskizuna da, antzerkia, dantza, musika, bideoa eta robotika uztartzen dituen.

Miren Amuriza berriztarrak eta Irati Eguren durangarrak, bestalde, *Bainera bete itsaso* album ilustratua aurkeztuko dute Loraldian. Martxoaren 21ean, Zamudio atariko Elkar liburu-dendan izango dira.

Izaro mallabitarraren kontzertu akustikoa ere jasotzen du Loraldiaren hirugarren edizioaren programazioak: apirilaren 1ean, 19:00etan, joko du Erronda kaleko Biba! tabernan. Horren aurretik, martxoaren 26an, hainbat musikaririk Pete Seeger kantariaren omenez eskainiko duten emanaldian ere parte hartuko du, gainera, Izarok.

Azkenik, Mikel Urdangarin zornotzarrak Loraldia itxiko du, apirilaren 8an. *Eskutik eskura* diskoa aurkeztuko du, Campos Eliseos antzokian.

> MUSIKA Itsaso Esteban
1997an elkarteak sortu zutenetik egin duten bezala, organoa ardatz nagusi duen programazioa antolatu du Durangoko Arandoño elkarteak bere 20. urteurrena ospatzeko. Sei kontzertu eskainiko dituzte 2017an, Durangon, eta Loreto Fernández Imaz organista donostiarrak gaur 20:00etan Andra Marian eskainiko duena izango da lehenengoa. Xabier Arana Arandoño kidearen arabera, Fernández Musikeneko irakaslearen gaurko emanaldia “organo kontzertu tradizional” bat izango da: bost obra joko ditu Andra Mariko organoan.

Arandoño antolatzen dituen emanaldirik gehienetan bezala, organoa elementu zentrala duten proposamen berritzaileak dira egitarauko beste bost emanaldiak. Maiatzaren 27an, adibidez, Ana Belen García organistaren eta Garikoitz Mendizabal txistulariaren emanaldia izango da entzungai, Durangon.

Duela 20 urte elkarteak eratu zuten bezala, “organo-musika gizarteratzea” da Arandoño elkartearen helburua, eta, besteak beste, hitzaldi kontzertuak programatu izan dituzte jomuga

Sei organo kontzertu, Arandoño elkartearen 20 urteak ospatzeko

Loreto Fernández Imaz organistarena izango da urteurreneko egitarauko lehenengo emanaldia. Durangoko Andra Marian izango da, gaur, 20:00etan



Urteurrenerako prestatu duten egitarauko azken kontzertua Thomas Ospital gazteak eskainiko du, abenduan.

horregaz. Formatu horretan, aurten, *Órgano a cuatro manos y cuatro pies* emanaldia eskainiko dute Jose Luis Echechipia eta Oscar Candendo musikariek.

Uda osterako, beste hiru emanaldi lotu dituzte: Miriam Cepe-

da eta Luis Alberto Requejoren organo eta klarinete kontzertua, Donostiako Orfeoaren eta Gerardo Rifón organistaren emanaldia, eta zinema mutuko film baten gaineko Thomas Ospital iparraldeko organistaren inpro-

bisazio saioa. Soinu banda jarriko dio Ospitalek film bati.

1997an elkarteak eratu zuten Félix Aretxaga eta elkarteko kide izan zen Andres Granados omenduko dituzte Arandoñoren 20. urteurreneko kontzertuotan.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN ZATIKA

Kultur teknikaria



Futbolaren kultura

Lanerakoan ezin diet ez ikusia-rena egin eraikinetan Bizkai-ko futbol taldearen banderei. Kultur etxeko sarreran aita bat ikusten dut umea ezin liburutegira bultzaka, hau telefono pantaila bati “Ronaldo, Ronaldo” oihukatuz jolas batekin itsututa dagoela. Haserre dator laguna bazkaltzera, irakasleak aurregia marra zuri-gorritz margotu diolako alabari eskolan. Etxerako biribilgunean, alboan doan eskoltadun autobusak ez du stopa errespetatu. Jakin dut Ipuruarantz doala, eskualdeko komunikabideek autobusaren kronika zehatza eman dute-eta, argazki, bideo eta guzti. Terrazatik gazteak eskolako patioan futboleantzen ditut. Irain homofobo jasanezinetatik ihesi, Ezkurdiranzkoan badakit zer topatuko dudana. Mutikoak espazio publiko osoa betetzen baloia ostikoka, paseorako bidea oztopatzen. Andra Mari inguruan, prest dago tramoia guztia alderdi politiko batek mitina eman dezan. Propaganda kartelean, Athletic-en ezkutua! Tabernan sartu naiz eta gizon koadrila zeharkatu behar izan dut ahal izan dudana moduan, telebistako partidari garrasika begira dauden bitartean, haserreak itsu. Ogitartekoa afaltzeko, telebistapean suertatu zait mahaia. Ezin lasai jan jendea bizkar gainean izanda, Barça ari zelako. Ohera joan baino lehen, telebistan iragarkiak erakusten dit jokalariek aurkariak gaintzeagatik, emakume talde bat biluzten zaiola saritzat. Ezinezkoa zait lasaitzeko irrati tertulierekin oheratu, partida egunetan gai garrantzitsuagoak daudelako.

Mentalitate, kontzientzia kolektibo eta ideologiaren ardatz da futbola. Zergatik eman hainbeste errekurto bortxakeria eta matxismoa hedatzen dituenari? Ezer ez da berdin.

Idazketa tailerra, Durangoko Bibliotekan

Danele Sarriugarte idazleak gidatuko ditu saioak

> LITERATURA I. E.

Bultzada batekin aise idazten da tailerra eskainiko dute martxo-ko eta apiril-eko lau zapatutan, Durangon. Udal Bibliotekak eta Andraguneak elkarlanean antolatutako idazketa tailerra da aipaturikoa, eta Danele Sarriugarte idazlea izango da saioen dinamizatzailea. “Orri zuriak sortzen duen beldurra uxatzea” izango da tailerraren helburua, eta xede horregaz hainbat ariketa proposatuko dizkie Sarriugartek parte-hartzaileei.

Martxoaren 18an eta 25ean, eta apirilaren 1ean eta 8an, 10:00etatik 13:00etara egingo dituzte saioak. Bibliotekan zein Durangoko Udalaren webgune-ko liburutegiaren atalean eman daiteke izena.

Martxoaren 18an eta 25ean, eta apirilaren 1ean eta 8an, egingo dituzte tailerraren saioak

‘Francoren bilobari gutuna’ saritu dute

Donostia antzerki saria emango diote antzezlanari

> ANTZERKIA I. E.

Igor Elortza eta Unai Iturriaga durangarrek idatzirik gidoian oinarriturik dagoen eta antzele taldean Ander Lipus berriztara daukan *Francoren bilobari gutuna* antzezlanari eman diote Donostia antzerki saria.

Martxoaren 27an Donostiako Victoria Eugenia antzokian egingo duten ekitaldian jasoko dute Artedrama, Dejabu Panpin Laborategia eta Le Theatre de Pain taldeetako kideek elkarlanean sortutako obrari emango

dioten saria —Iñigo Manterola artistaren eskultura bat eta 12.000 euro—.

Donostia antzerki sariketako epaimahaiak nabarmendu du *Francoren bilobari gutuna* “sorkuntza lan bikaina” dela. Antzezlaneko gaiari buruz aurretik egindako ikerketa lan sakona goraiatu du sariketaren epaimahaiak, eta baita lantaldeak “bizitasun handiko momentuak une hunkigarriekin tartekatuzko” erakusten duen trebetasuna ere.

Hilos
La Rous (Granada)
Martxoaren 11n, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUINEA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

MARTXOAK 11
22:00etan
KOKEIN + PERLAK
KONTZERTUA

MARTXOAK 18
21:30etan
HAU EZ DA ROCK RADICAL VASCO
JAIALDIA

MARTXOAK 22
17:00etan
JOLASAREN TXOKOA
HAURRENTZAKO EKINTZA

AGENDA
> FUTBOLA
BIGARREN B MAILA (gizonak)
Amorebieta - Majadahonda · Zapatuan, 17:00etan, Urritxen.
OHOREZKO MAILA (gizonak)
Iurretako - Ugeraga · Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.
Zaldia - Gatika · Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian.
Elorrio - Apurte · Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)
Amorebieta B - Zorrotzako · Zapatuan, 15:30ean, Txolonen.
LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)
Ezkurdi - Sestaotarra · Zapatuan, 16:00etan, Tabiran.
> ARETO-FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA (gizonak)
Presion Break - Bilbo · Domekan, 12:00etan, Berrizko Berrizburu kiroldegian.
EUSKAL LIGA (gizonak)
Elorriko Buskantza B - Erandiotarrak · Zapatuan, 16:00etan, Elorriko udal kiroldegian.
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)
Elorri Txiki - Iturriondo · Domekan, 09:00etan, Elorriko kiroldegian.
Mallabia B- Mundaka · Domekan, 16:00etan, Zaldibarren
EMAKUMEEN ERREGIONAL MAILA
Elorriko Buskantza - Soloarte · Zapatuan, 18:00etan, Elorriko udal kiroldegian.
> SASKIBALOA
ZILARREZKO LIGA (gizonak)
Zornotza S.T. - Valladolid · Zapatuan, 18:30ean, Larrean.
EUSKADIKO LEHEN MAILA (gizonak)
Tabirako Baqué - Mungia · Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian.
EUSKADIKO LEHEN MAILA (emakumeak)
Tabirako Baqué - La Salle · Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.
EUSKADIKO BIGARREN MAILA (gizonak)
Tabirako Baqué - Aloña Mendi · Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian.
> PILOTA
BIHARKO IZARRAK
- P.Labaka-Irurita / Garcia-Otaduy - Prado-Mariekurrena / Salaberria-Aizpuru · Eguenean, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan.

Carlos Garcia Valduvico | Eskalatzaile ohia | Durango, 1938

“Kalamuzko sokekin eta mendiko botekin eskalatzen genuen gure garaian”

50eko hamarkadan hasi zen eskalatzen Carlos Garcia; euskal eskaladako aitzindarietako bat da.



> KIROLA Maialen Zuazubiskar **Carlos Garcia euskal eskaladako aitzindarietako bat da. Gaur, 19:30ean, Mendiak Hurbilduz topaketan bera hobeto ezagutzeko aukera egon da.**

Pou anaiekin batera Platerue-
nean ikusiko zaitugu gaur. Eskaladako erreferenteak dira Pou anaia. Nire aldean asko dabilta horiek; euren ondoan lagin txiki bat besterik ez naiz. Hala ere, bertan egotea plazer bat da. Eskaladaren munduan bizitakoak kontatuko ditugu Plateruean.

50eko hamarkadan hasitakoa zara zu hormak igotzen. Bai, hori da. Hamasei bat urte gaz hasi nintzen eskalatzen. Hasieran, Mañariko inguruetan eskalatzen nuen, eta horren ondoren, Atxartera pasatu nintzen. Hortik aurrera, Euskal Herriko eta Euskal Herrikan kanpoko hainbat pareta eskalatu nituen.

Urte gutxian, eskualdean eskalatzen ibiltzetik Pirinioetako eta Alpeetako hormak igotzera pasatu zinen.

Bai, hasieran Durangaldeko hormetan ibiltzen nintzen arren, eskalada munduko jende ona ezagutzeko aukera izan nuen, eta horrek bide berriak ireki zizkidan.

Nola gogoratzen dituzu hasierako urte haiek? Urte gogorak izan ziren. Ez geneukan laguntza askorik eskualdean. Nik Bilboko eskalatzaile batzuekin batzea lortu nuen. Beraien laguntzari esker, eskaladan aurrerapauso bat eman nuen, eta maila dezentea ematen hasi nintzen.

1962 inguruan Jose Maria Regil eskalatzaile bilbotarragaz bikotea osatu zenuen. Nolako garaiak izan ziren? Garai oso politak izan ziren. Askok gozatu nuen sasoi hartan. Bikote bikaina egiten genuen Regilek eta biok. Bera tekniko ki oso ona zen, eta gauza asko irakatsi zizkidan. Nik, berriz, indar handia neukan.

Baina, sasoirik onenean zeundenean, eskalada utzi zenuen. Gazterik utzi nuen, hogeita hamahiru bat urte gaz. Etxekoek

ez zuten ondo eramaten horrelako arrisku guneetatik ibiltzea, asko sufritzen zuten. Berriz, eskaladatik erretiratzea erabaki nuen.

Eskalatu dituzun hornei errepasoa eginez, zein da ikusgarriena? Tozal Del Malloko (Ordessa) igoera da gehien gustatu zitzaizana. Ikusgarria izan zen, izu-

“*Jose Maria Regil teknikoki oso ona zen, eta nik, berriz, indar handia neukan*”

“*Atxarten hildako lehen eskalatzailearen erreskatean parte hartu nuen*”

garri gozatu nuen igoera hartan. Une oro, aske sentitzen nintzen pareta hartan.

Bestalde, garai hartako eta egungo materialari erreparatuz, oso ezberdinak al dira? Guztiz ezberdinak. Guk, esaterako, kalamuzko sokak erabiltzen genituen, ez genuen kasikorik erabiltzen eta gure eskalatzeko oinetakoak mendiko botak izaten ziren. Orain, berriz, soka oso onak dituzte, eta eskalatzeko aproposak diren oinetakoak. Zirietan ere alde izugarria dago. Orain, oso ziri onak daude, baina, gure sasoiaren, neuk egiten nituen eskalatzeko ziriak, lantokian. *Hor-mako arotza* deitzen zidaten.

Orduko materialak, beraz, arrisku maila ere handitu egingo zuen.

Horrelako tokietan arriskua beti egoten da, bai lehen eta baita orain ere. Baina, egia da lehengo materiala ez zela oso ona, eta horren erruz momentu zail batzuk bizi izan genituela.

Momentu zailez hitz egin duzu. Atxarterko hormetan izandako lehen erreskatean parte hartu zenuela entzunda daukagu.

Bai, bertan izan nintzen. Laguna nuen Jose Angel Mintegi, Atxarten hil zen lehen eskalatzailea. Goizean, Aizkorri-
ra edo Atxartera joateko asmoa zuela esan zidan Jose Angelek. Atxartera ez joateko esan nion, han eskalatzeko trebea izan behar da eta. Baina, ez zidan kasurik egin. Jose Angel etxetik agertzen ez zela ikusita, bere aita eta biok Atxartera joan ginen, eta bertan aurkitu genuen, hilda. Oso momentu gogorak bizi izan nituen orduan.

Euskal eskaladako erreferente zaren heinean, ze gomen-dio emango zenioke mundu honetan hasiberri den bati. Lehenik eta behin, burua erabiltzeko, eta, nola ez, ikasteko. Teknika da garrantzitsua eskalatzeko orduan, indarra baino garrantzitsuagoa. Gainera, gaur egun toki oso onak daude eskalatzen ikasteko.

Harrobiko 200 jokalarri, Berrizi prestigioa itzultzeko lehengaia

Urte latzak igaro ostean, kluba berregituratzeko lanean dabilta



Berrizek 1-0 menderatu zuen San Antonio, joan zen zapatuan, Mikel Agirrerren gol eder bati esker.

> FUTBOLA Joseba Derteano Izan zen sasoi bat Berriz eskualdeko futbol talderik prestigioetsuenetakoa zena. Baina Ohorezko Mailan zebilen garai haiek joan ziren, eta kluba gainbeheran erori zen, bai kirol arloan, bai ekonomikoki. Ataka horri ere aurre egin zioten, eta orain, etorkizunari berririo esperantzaz begiratzeko arrazoiak aurkitu ditzakete. Denen gainetik, harrobia dago. 2015ean

hiru talde baino ez zeuden: nagusietatik kadeteetara. Gaur egun, aldiz, hamabi dituzte, futbol eskola bat barne.

Berrizko ikastetxeetan zebiltzan taldeak futbol klubeko egiturara batu ziren iaz. Horri esker, haur-kategorian eta ki-muetan bina talde eta benjaminetan beste lau gehitu dituzte, futbol eskolaz gainera. Guztira, 200 bat gazte. "Harrobia oso baliotsua da guretzat", aitortu

du Isolino Rua klubeko presidentek. Lehengai kantitate hori etorkizunerako bermea da, baina ezin du epe laburreko arazorik konpondu. Berriz futbol kluba estu dabil Bigarren Erregionalean. "Hirugarren Erregionalerako jaitea kolpe gogorra litzateke klubaren prestigiorako", dio Ruak. Jokalariak bada-kite hori. Joan zen asteburuan San Antonio aurkari zuzenari 1-0 irabazita, euren aurpegietan

sumatu zitekeen lasaitasuna horren erakusgarri da. Egunetan pilotutako tentsioa askatu ahal izan zuten une batez. Baina ezin dira loak hartuta geratu, jaitsiera postuan dagoen Iberlandagaz puntuetara berdinduta jarraitzen dute eta.

Aurten talde laburra du Berrizek. 18 jokalarri baino ez. Gainera, horietatik lau gazte mailatik igotakoak dira. Esperientzia falta ere arazo bilakatu daiteke denboraldia bere une erabakigarrian sartzen denean.

Taberna, diru iturri nagusi

Berriz futbol kluba haustura batetik erreperatzen dabil. Aurreko zuzendaritzaren artean desadostasunak izan ziren. Batzuek utzi egin zuten, eta geratu zirenek dimititu egin zuten gerora. Inork ez zuen ardua hartu gura, eta kluba desagertzeko arriskuan izan zen. Udalak batzar irekiak antolatu zituen gidaritza hartuko zuten boluntarioen bila, eta prozesu horren ondorioa da gaur egun Rua buru duen batzordea. "Kluba, gutxi-asko, behea jota zegoen guk jaso genuenean. Gaur egun 15.000 euro ditugu bankuan". Diru iturri nagusia taberna dute. "Futbol zelaiko tabernatik datoren diru barik kluba ez zen bideragarria izango", onartu du.

ADITUAREN TXOKOA

KOIKILI LERTXUNDI

Futbolari ohia eta enpresaria



Jatorria itzultzen

Azken kolaborazioari izenburua ematen zion 'Emaitza&Jokoa' artikulua berean jarraitzen duela uste dut, hots, Athleticen aurten arazoak izaten jarraitzen duela jokoa eta emaitza arteko oreka lortzeko.

Zentzu honetan, azterketa sakonagoa gauzatzen badugu, ondorio berrietara iritsi gaitzake. Horietako batek taldearen beraren nortasunarekin lotura zuzena du, nortasun historikoarekin alegia. Hau da, aurtengo denboraldia historian zehar Athleticen egindako denboraldi anitzten ispilu da. Izan ere, ligako partidak aintzat harturik (kopan eta Europa Leaguen joera baieztatzen den) etxean partidak ateratzea lortzen du (10 irabazi, 3 berdindu, 1 galdu); kanpoan, ordea, ezinean (2 irabazi, 2 berdindu, 8 galdu, 8 puntu). Etxetik kanpo ligako azken bosgarren taldea da.

Beraz, egoera hau ez da berria, Malagaren partidaren bukaeran 'Dani' jokalarri mitikoak aipatzen zidan bezala. Ordea, zentzu askotan ezberdintasun nabarmenak daude (jokalariak, futbolaren garapena...), baina, nire ustez, azpimarragarriena hauxe da: Europar sartzea nahi badugu, etxean sendo jarraitzeaz gain, kanpoan puntu gehiago pilatu behar ditugu. Horren lekuko gaurko egoera: 27. jardunaldiaren atarian, 7. postuan gaude, Europatik at, baina postu bakarragatik, zehazki 4 puntugatik. Ez gara heltzen! Eta joera aldatzeko, zer hobeto Realaren kontrako derbia baliatzea baino? 3 puntu edo 1, baina pilotzea nahitaezkoa! Orain eta beti, aupa Athletic!

Abadiñoako Txopoa mailaz igo da, eta liga porrotik barik amaitzea du erronka



Abadiñoako Txopoa taldeko jokalarri eta zaleak igoera ospatzen.

> ARETO-FUTBOLA J.D.

Abadiñoako Txopoa areto-futbol taldea mailaz igo da. Proiektua sortu duten urte berean lehengo saltoa ematea lortu dute, eta Lehenengo Erregionalean arituko dira datorren urtean.

Estreinako urtea izanagatik ere, talde indartsua zuten eta mailaz igotzea zen helburua, Egoitz Diaz entrenatzaileak denboraldi hasieran adierazi zuen moduan. Helburua joan zen asteburuan segurtatu zuten Galdakaori 0-5 irabazita. Oraindik lau jardunaldi geratzen diren arren, Ligako txapeldun ere badira. Horrek erakusten du aurten Bigarren Erregionalean izan duten nagusitasuna. Denboraldia porrotik barik amaitzea da liga amaitu bitartean geratzen zaien erronka. Orain arte partidu bat berdindu, eta gainerakoak irabazi egin dituzte.

13 partidu irabazita eta bat berdinduta lortu du igoera. Aldeko 74 gol eta kontrako 14 baino ez

Mendibeltz eta Tolosto

Durangaldeko beste talde bi ere igotzeko borrokan dabilta Bigarren Erregionalean. Racing Tolosto igoera postuan dago, eta Mendibeltz igoerako promozioan. Biek 29na puntu dituzte.

R.P.S. 21406

A. Urreta podólogo

Podinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

hitz #gomendioak

artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT
AUTOBUSA BERRIRO BERA
GABE ABIATU ZEN
EGUNEKOA Beika, Marko
& Cosson (2017)

UME ETA GAZTEENTZAT
NON ZAUDE, ILARGI?
Émile Jadoul (2011)

MUSIKA
LO MEJOR DE
Flaco Jiménez (2004)



Etxebizitzak salgai 1, 2, 3 eta 4 logelatakoak



KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

Durangoko herrigunean

Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak

***Etorri
ikustera!***

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrion eta Durangon

> Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. - 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukalde, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotarixuena Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukalde, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukalde, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukalde, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukalde balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukalde, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€ -tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukalde, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukalde, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukalde esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukalde, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txaleta 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukalde, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatuzko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatuzko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

ARRILUZEA



• 73,56 m2 erabilgarri. 2 logela, egongela, sukalde jarrita, 2 komun, balkoia eta esekitokia, garaje plaza eta trastelekua. Altzariz hornitua. **240.000€.** Ziurtagiri energetikoa jasotzeko zain.

FRANCISCO IBARRA



• 101 m2 erabilgarri dituen etxebizitza: 3 logela, egongela, sukalde jarrita, 2 komun eta bi balkoi handi. Berogailua eta igogailua. **230.000€.** E.E.Z.: E

ERRETENTXU



• 93 m2 erabilgarri. 4 logela, egongela, sukalde jarrita, komun bat eta balkoia. Berogailua gas naturalarekin. Igogailua. Garajea aukeran. **210.000€.** E.E.Z.: E

ANTSO ESTEGIZ



• 60 m2 erabilgarri ditu. Egongela, sukalde jarrita, 2 logela, komuna eta balkoia. Igogailua dauka eta ataria mugikortasun urritasuna dutenentzat egokituta dago. Ganbara (prezioan barne). **200.000€.** E.E.Z.: E

TABIRA



• Ederra. Hegoalderantz begira dagoen apartamentua. Logela 1, egongela, sukalde jarrita, komuna, balkoia ganbara velux-arekin. **180.000€.** Ziurtagiri energetikoa jasotzeko zain.

BARRENKALE



• 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Igogailuarekin. **120.300€.** E.E.Z.: G

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBITZAK SALGAI

ATICO -ZUMALAKARREGI - (Ezkurdi)



• Duplexa. Kapritxokoa. 270m2. 5 logela. 4 komun. 2 sukalde. 2 egongela handi. Tximiniarekin. Aire egokitua. Terraza. 2 garaje.

OIZ kalea



• 3 logela. Komuna. Sukalde-Egongela 2 Balkoi. Eguzkitsua. **150.000€.** €

ZALDIBAR



• BERRIAK ESTREINATZEKO. 2 logela. 2 komun. Egongela. Sukalde. Trastelekua. Garajea aukeran. **153.000€** (BEZA barne). €

DURANGO (AUKERA)



• 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. **85.000€.**

ARKOTXA



• 4 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Sukalde zabal. Ganbara eta garajea. **238.000€.** €


J.M.ALTUNA



• 100 m2. 3 logela. 2 komun. Sukalde esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **269.000€.** €

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarki**laburrak**.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegiaren eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Aukera oso ona! Tel.: 651-34 80 08.

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Durangaldea. Benidormen apartamentua alokagai. Tel.: 638-51 93 09.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

Durango. Esperientzia handiko emakumeak plantxa zein etxeko lanak orduka egiteko eskaintzen du bere burua. Tel.: 645 70 68 39.

PERTSONAK ZAINDU

Elorrio. Emakume euskalduna eta esperientziaduna goizetan haurrak esnatu, gosaltzen eman eta eskolara eramateko prest. Interesa baduzu, deituidazu: 658-75 92 64.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Kanpoko zein barneko langile moduan aritzen naiz. Baita asteburuetan eta orduka ere. Tel.: 631-73 01 44.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan eta jatetxeetako garbiketan ere aritzen naiz. Barneko zein kanpoko langilea, baita orduka eta lanaldi osoan ere. Tel.: 632-67 95 50.

Durangaldea. Esperientziadun emakumezkoa lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko edo barneko langile moduan, orduka edo asteburuetan. Tel.: 617-65 52 93.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere aritzen naiz. Goizez zein lanaldi osoan. Tel.: 608-60 85 09.

Durangaldea. Esperientziadun gizonzkoa pertsona nagusiak zaintzeko eta sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest. Kanpoko zein barneko langilea. Tel.: 631-63 27 43.

Durangaldea. Nagusiak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel.: 631-44 46 55.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Kanpoko zein barneko langilea. Baita ere, lanaldi osoan, lanaldi erdian, gauez, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest dagoena. Tel.: 631-44 98 31.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Horrez gain, etxe-zerbitzuetarako eta garbiketarako prest dago. Kanpoko langile moduan, orduka, gauez edo asteburuetan lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612-43 55 51.

Durangaldea. Esperientziadun emakumezkoa pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest. Kanpoko zein barneko langilea. Tel.: 632-29 16 73.

Durangaldea. Lan bila nagusiak edo umeak zaintzen, edo etxeak garbitzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 665-34 77 17.

Durangaldea. Neska arduratsua pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 602-84 62 37.

Durangaldea. Neska arduratsua pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 632-88 97 96.

Durangaldea. Lan bila nabil nagusiak zaintzen zein garbiketan. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 631-40 23 56.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langile moduan ibiltzen naiz. Prest nago asteburuetan, jai egunetan, gauez, orduka, lanordu erdian edo lan ordu osoan aritzeko. Tel.: 690-68 73 95.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Tel.: 631-65 87 03.

Durangaldea. Nagusiak zaintzen lan bila nabil, gauetan lagun egiteko, ospitaleratzeak... Garbiketa lanetan aritzeko prest. Lanaldi erdira, osora zein orduka. Barruko edo kanpoko langile moduan. Esperientziaduna. Tel.: 632-57 31 80.

Durangaldea. Lan bila nabil nagusiak zaintzen. Garbiketa lanetan

aritzeko prest. Barruko edo kanpoko langile moduan. Lanaldi erdira, osora zein orduka. Esperientziaduna. Tel.: 632-31 49 55.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila dabil, barneko zein kanpoko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan jarduteko prest ere. Esperientziaduna. Tel.: 602-08 14 56.

Durangaldea. Esperientziadun neska arduratsua lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Ordukako langilea, goizetan, arratsaldetan, gauetan zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 602-03 47 74.

Durangaldea. Ostalaritzan, nagusiak zaintzen edo atariak garbitzen lan egiteko prest dagoen emakumezkoa. Hiru lanetan esperientzia daukat. Egunez lan egiteko prest. Tel.: 632-49 11 30.

Durangaldea. Esperientziadun gizonzkoa lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko edo barneko langile moduan, orduka edo asteburuetan. Tel.: 634-26 55 31.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Kanpoko langile moduan jarduteko prest. Tel.: 680-22 60 39.

Durangaldea. Esperientziadun emakumea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Etxetako garbiketan edo tabernetako garbiketan, eta baita sukaldari laguntzaile gisa ibiltzeko prest ere. Lanaldi osoan, goizez eta gauez lan egiten dut. Tel.: 665-13 30 89.

Durangaldea. Esperientziadun emakumea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Etxetako garbiketan edo tabernetako garbiketan, eta baita sukaldari laguntzaile modura ibiltzeko prest ere. Lanaldi osoan, goizez eta gauez lan egiten dut. Tel.: 651-94 14 57.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen dituen emakumezkoa arduratsua naiz. Kanpoko zein barruko langile moduan ibiltzen naiz lanean. Horrez gain, orduka edo asteburuetan ere lan egiten dut. Tel.: 632-03 27 98.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Garbitasunean, sukaldari laguntzaile moduan edo okindegi bateko laguntzaile ere aritzeko prest nago. Kanpoko zein barneko langilea. Astelehenetik barikura lan egiteko prest.

Tel.: 622-62 32 16.

Durangaldea. Zaintza eta garbiketa lanetarako prest, orduka zein lanaldi erdian. Tel.: 602-08 35 80.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila. Kanpoko edo barneko langilea, nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 674-83 00 52.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila. Pertsona nagusiak zaintzen dituen kanpoko edo barneko langilea. Tel.: 602-19 06 14.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-87 04 16.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbitasunean eta tabernetan lanean ere aritzen naiz. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-93 42 55.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut eta garbitasunean ere aritzen naiz. Orduka zein goizez lan egiteko prest. Tel.: 628-73 84 72.

Durangaldea. Lan bila garbiketan, edo nagusiak zein umeak zaintzen. Esperientzia dut etxeko etxeko laguntzaile lanetan. Geriatrikoko laguntzaile lanetan ere jardun dut. Tel.: 607-08 60 90 (Ana)

IRAKASKUNTZA

Durango. Ume eta gazteekin esperientziadun neska naiz, euskalduna eta HHko unibertsitateko ikasketak egiten nabil. HHko goi mailako zikloa daukat eta irakaskuntzaren inguruko hainbat ezagutza gehiago ditut. 7 urte daramatzat ume eta gazteekin kirol arloko ekintzetan. Galderarik edukiz gero, ez beldurtu eta galdetu whatsapp-etik edo deitu telefono honetara: 692-71 66 46.

Durangaldea. Wolof hizkuntza erakusten dugun senegaldarrak gara. Gura duzuen orduan. Ez dugu prezio zehatzik, borondatea eskatzen dugu. Tel.: 612-50 13 51 (Manadov).

Durangaldea. Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrik ematen dizkiet. Tel.: 695-76 85 01 eta helbide@ibazabalikastola.eus.

Durangaldea. Neska euskalduna, administrazio ikasketak dituen eta esperientziaduna. Lehen Hezkuntan eta DBHn partikularrik emateko prest,

banaka zein talde txikitan. Tel.: 662-36 41 67 / 946-81 39 40.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Lana bilatzen nabil obretan, margolari edo lorezain gisa, eta baita pertsona nagusiak zaintzen ere. Esperientziadun gizonzkoa. Erabateko prestasuna. Tel.: 610-08 00 47.

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

ABARKETERUENA tabernan sukaldaria behar da

Menuan eta kartan esperientzia izatea baloratuko da.

Bidali curriculuma: abarketeruena@gmail.com helbidera.

Durangaldea. Neska euskalduna behar dugu sukaldari laguntzaile gisa aritzeko. Kotxea beharrezkoa. Tel.: 689- 80 23 62.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Durangaldeko enpresa batek administrazio eta finantzarako goi mailako teknikaria behar du enpresaren administrazioa eramateko. Jardun osoko lanpostu egonkorra da. Berehala lanean hastea aurreikusten da. Bidali cv-ak laneskaintzak@gmail.com.

Denetarik

SALDU / EROSI

El naturalista botak salgai.

El naturalista bota ia berriak salgai. 40-41 zenbakia. Orain lanagaiak janzkera aldatu behar izan dut eta ez ditut erabiltzen. Bi aldiz erabili ditut, berri berriak daude. Interesa izanez gero bialdu whatsapp bat 695-70 62 27 zenbakira.

GAINERAKOAK

Bazkide bila lurretako txokoa. lurretako plazan txokoa zabaltu gura dugu. Horretarako, bazkide bila gabiltza. Tel.: 686-21 49 64 (Gaizka).

Familia - etxea

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

SALDU

Haurren bebecar markako kapazu eta aukia saltzen ditut.. Haurren bebecar markako kapazu eta aukia saltzen dut, bere zaku eta guzti. Gehigarriak oparitzen ditut, (uretako babesa, eguzkitakoa, hamaka, eta paseo aukia bby markakoa). Dena egoera onean dago. Prezioa adosteko. Tel.: 686-96 63 73.

> LEHIAKETA

ZORIONAK, IDOIA ETXEBARRIA!

Idoia Etxebarriaren 'Krispetak' argazkiak irabazi du inauterietako argazki lehiaketako asteburu pasa.

anboto
komunikabideak

> BOTIKAK

BARIKUA, 10
09:00-09:00

Mugica
Andra Maria 9 - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

ZAPATUA, 11
09:00-09:00

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurretza

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-13:30

Mugica
Andra Maria 9 - Durango

Navarro
Artekalea 6 - Durango

De Diego
Intxaurrondo 22. - Durango

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango

Unamunzaga
Muruetatorre 2C - Durango

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Sagastizabal
Askatasun etorb. 19 - Durango

Bartolome
Gabiola 2 - Berriz

Larrañaga-Balentiaga
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

Eguren, Isabel
Triañabarren 15 - Abadiño

Iruarrizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

DOMEKA, 12
09:00-09:00

Navarro
Artekalea 6 - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ASTELEHENA, 13
09:00-09:00

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

Iruarrizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

MARTITZENA, 14
09:00-09:00

Sagastizabal
Askatasun etorb. 19 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

Iruarrizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

EGUAZTENA, 15
09:00-09:00

De Diego
Intxaurrondo 22. - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

Iruarrizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

EGUENA, 16
09:00-09:00

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

Iruarrizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguazteneko 14:00ak arteko epea



> Zorionak! Martxoan **Iratik** 6 urte egiten ditu eta **Ekainek** 4 urte. Jarraitu beti bezain alai! Amatxo, aitaxo eta amama-aititen partez, muxu handi bana!



> Zorionak, aitite, zure 75. urtebetetzean! Iratiren eta Ekainen partez, muxu handi bat!



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Garazi eta Ehiarne!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> **Ametzek** eta **Sugarrek** domekan 7 urte eitten dabez. Zorionak familixa guztixen partez eta mosu potolo bana.



> Abadiño **Malen Etxegarai** 4 urtetxo egiten ditu martxoaren 15ean. Zorionak eta mosu handi bat familia guztiaren partez.



> **Unai** 8 urte egin ditu martxoaren 4an. Zorionak eta mosu handi bat etxekoan partez.



> Gaur **Maddik** 2 urte betetzen ditu. Zorionak etxeko guztixen partez eta jarraitu orain arteko alai eta sorgin izatan. Mosu handi bat!



> Zorionak, **Aner!** Atzo 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, Izar, Irati eta etxeko danen partez!



> Lokaleko patosa lodixenak 24 urte bete deuskuz, zorionak fisio-pitxonxito! 24 pah goxo!



> Zorionak, Jultrap Elektrolatino! Bikain pasa dezazula eta ahalik eta ondoen ospatu. Besarkada handi bat zure lagunnen partez. Aupa Eibar.



> Martitzeneko mosuak hartu eta gero, domekan familixa guztixa batuko gara **Maribiri** mosu gehixau emoteko! Zorionak ama/amama eta jarraitu irribarre horrekin!



> Zaldibartik mosu handi bana, bi sorginei beraien urtebetetze egunean.



> Lauaxetako langile ohiak alkartu ziren aurreko astean San Migelen. Aupa, Mari Carmen!



> Aurreko zapatuan Gran Hotelen alkartu ziran papeleran lan egindako neskatilak. Aupa, neskek!

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

clínica dental hertzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

“Estualdixoren bat bizi izan dut, baina istripua izateko beldurrik ez dut izan”

Lauzpabost urte dira Osakidetzako helikopteroa gidatzen duela; aurretik, mekanikari lez joaten zen

> AKUILUA Aitziber Basauri
Osakidetzako helikopteroa gidatzen du Sopelan bizi den durangar honek. Sindikatik egiten dute lan, eta 08:00etan hasita 12 orduko guardiak egiten dituzte. Inoiz bizi izan du estualdixoren bat, baina ez du beldurrik sentitu. Segurtasuna handia dela dio. Bere izena dela-eta bromarik ez zaiola falta onartu du, “bidea ematen du”.

Noiztik Osakidetzako helikopteroa gidatzen?

Mekanikari moduan hasi nintzen zerbitzua martxan jarri zenean. Orain bete dira hamar urte. Orduan, me-

kanikariok ere egiten genuen hegan. Pilotua, mekanikaria, medikua eta erizaina joaten ginen. Gerora, kopilotuak sartu ziren. Trebatu, eta lau zpabost urte dira kopilotua naizela.

Tripetan ariztetik aparatua gidatzera pasatu zara. Nolatan? Beti gustatu zait asko mekanika, baina hegan hasi nintzean interesa piztu zitzaidan. Helikoptero sanitario bateko lana oso polita da, eta pilotu aritzeko nahia piztu zidan.

Helikoptero normal bat gidatzearekin alderik badu?

Helikopteroa gidatzeak lan piloa egiteko aukera ematen du, hori da politena: medikalizata daude, suteak itzaltzeko edo erreskate lanetarako prestatuta, itsasoko salbamendurako edo filmazioetarako... Hala ere, niretzat sanitarioa da politena. Beti gustatu zait. Laguntzeko aukera ematen dit eta bete egiten nau. Jendeagaz hartu emanean nago eta lan talde polita dugu.

Beste lanen batean ibili zara?

Bai, baina mekanikari moduan beti. Suteak amatatzeko lanetan ibili nintzen Extremaduran, zazpi hilabetez. Eta enpresak Albaceten duen mantentze-zentroan ere bai, urtebetean. Gero hasi nintzen Osakidetzako helikopteroagaz.

Helikopteroek mantenu handia behar dute. Medikalizatuak are gehiago?

Denek behar dute mantenu handia. Egunero, hegaldia hasi aurretik eta amaitzean, errebisio txiki bat egiten da. Astero sakonagoa den beste bat egiten diote; eta hilero hirugarren bat. Horrez gain, 50 ordu eta 100 ordu hegan egin ostean ere egiten zaio azterketa. Urtean behin, ia osorik desmuntatzen dute helikopteroa. Osagai piloa aldatu eta berriro muntatzeko.

Mendiko erreskateetan askotan behar zaituzte?

Bihotzekoa izan dutenak eramaten ditugu gehien, eta kostako herrietara ere askotan joaten gara, anbulantziak denbora behar baitu heltzeko. Enkarterrietara ere bai, distantzia dela-eta. Lan-istripuak direnean ere joan gara asko.

Larritasunaren arabera deitzen dizute?

Bai, baina baita sarbide zaila du.

ten lekuak direnean. Mendi inguruak, adibidez. Anbotora edo Zabalandira askotan joan gara. Uda sasoiari hondartzetara ere joaten gara asko, kostako herrietara... Ospitaletik ospitale-rako bidaiak ere baditugu; Madrilera, batez ere.

Egualdia duzue batzuetan etsai?

Bai, denok dakigu nolakoa den Euskal Herria. Hego-haizea da txarrena! Mendian, batez ere. Haizealdera joatea edo haizeak behetik jotzen duenean zaila da hegan egitea. Ikusgaitasuna galtzen da xiri-miri itxiagaz, edo ekaitz eta behelaino egunetan, eta irteteko arazoak sortzen dira. Baina oso arraroa da ez irtetea. Estualdixoren bat bizi izan dut, baina istripua izateko beldurrik ez dut izan inoiz.

Gogoan duzu lehen eguna?

Bai. Mekanikari lez joan nintzen Igorreko futbol-zelaira. Trailer batek, atzeraka zihoala, gizon bat harrapatu zuen. Gidaria semea zen, aparkatu zezan laguntzen ari zen aita. Gogorra izan zen. Ez da ohikoa, baina nire lehenengo eguna zen hura.

Bizipen politik ere badira?

Bai. Ume asko eramaten ditugu, eta onera egin dutela jakitea pozgarria da, baita erreskatatu duzun mendizalea edo surflaria ikustea ere. Lankide batek erditze bat bizi izan zuen airean.

Izenagatik entzungo dituzu...

Bai! (barrez). Broma asko daude, horretarako bidea ematen du. Umerez hartzen dut! Nire buruaz barre asko egiten dut.

LAUHORTZA

JON ANDER RAMOS

Historialaria



San Francisquito

Udaberria ate-joka dugun honetan, kolore aniztasunez gozatzeko aukera izango dugu laster. Beraz, aukera ezin hobea kolorez aritzeko. Emakumearen eskubideen nazioarteko eguna koloreztatzearekin erabiltzen dugun morearen zergatiak arituko gara. Zergatik martxoak 8 eta zergatik morea?

XIX. mendean industrializazioarekin batera gizarteak eraldatu zen; nekazaritza eremuetatik hirietara jauzi eginez, gizaki eta makinaren arteko harremanak estutzen hasi ziren. Tartean emakumeek ere beren lekutxo aurkitu zuten oihalgintzan aritzeko. Aukera paregabea lan munduan sartzeko, etxeko/familia beharrek deskuidoan utzi barik. Amaituezinezko jardunak, baina kexatzeko aukerarik ez.

1857an New Yorken lehendabiziko manifestaldia egin zen, poliziak gogor erreprimitu zuena. Mendebaldeko geroago, 1908. urtean, hiri bereko Cotton New York enpresako emakumeek euren eskubideen defentsan greba hastea erabaki zuten. Altxamendu horrekin amaitzeko, ugazabak sua eman zion enpresari, bertan zeuden 129 emakume kiskalita hil zirelarik.

Gertaera lasgarri honetatik omen dator kolore morearen erabilpenaren arrazoia. Momentu horretan tratatzen ari ziren oihalen edota kearen kolorea zelakoan.

160 urte, beraz, New Yorken izandako lehendabiziko agerraldi horretaz, martxoaren 8an. Eta 40 urte bete dira asteon San Francisquito elizan, Bilbon, martxoaren 8an ere, Bizkaiko emakumeak, milatik gora, euren eskubideen defentsan elkartzeko eta aurrera egiteko asmoarekin lehendabiziko elkartu zirela.





Anbotoren lagunak

Errigoraren eskutik UZTABERRIKO produktuen sorta bat zozkatuko dugu Anbotoren lagunen artean!



ZORTE ON!

